

# Compte rendu du Conseil Municipal du 9 décembre 2019

## 2019ko abenduaren 9ko Herriko Kontseilua

Présents / Hor zirenak : BARBIER, ECHEVERTZ, ETCHEVERRY, GARY, OXARANGO andreak eta BARNECHE, BISCAY, ETCHEBERRY, HERNANDEZ, SOULIGNAC jaunak

Absents excusés / Ezin etorria jakinarazia zutenak: ETCHART-DUHALDE anderea eta ETCHEGARAY jauna

Aiherrako Herriko Kontseilua 2019ko abenduaren 9an bildu zen Herriko Etxeko kontseilu gelan, 20:30ean, eta hau deliberatu zuen:

### 1. Aurrekontu nagusiari buruzko aldaketa erabakia

FUNTZIONAMENDUA	
<b>GASTUAK</b>	
61524 - Oihanak	-3 000
275 – Ordaindu ezarpen eta bermeak	3 000
<b>OROTARA</b>	<b>0</b>

INBESTIMENDUAK	
<b>GASTUAK</b>	
2313 – Elbarrituendako helgarritasuna Herriko Etxean – 172. operazioa	- 5 000
2315 – Plaza – 153. operazioa	5 000
<b>OROTARA</b>	<b>0</b>

Herriko Kontseiluak onartu du.

### 2. Euskararen hobekuntza kontratua Euskal Elkargoarekin

#### Helburuak:

- Herriko Etxeak eta herriarteko sindikatuak laguntzea publikoarekin ari diren zerbitzu estrategikoetan eskaintza elebiduna plantan ezartzeko,
- Elebitasuna plantan ezartzeko behar da:
  - herriko langileen euskara gaitasuna garatu, edo elebidunak enplegatuz edo formakuntza profesionala eginaraziz,
  - euskara integratu zerbitzuetako lan-euskarrietan, bereziki itzulpenak eginez,

- euskara herriaren irudian eta paisaian integratu (afixak, seinaletika, komunikazio euskarriak),
- urte guzietan herritarrei euskarazko ekintza zehatzak proposatu (adibidez: animazioak proposatu Euskararen urtaroaren eta Euskaraldiaren kariatara, euskararen presentzia bermatu antolatzen diren animazioetan, Aiherrara heldu berriak euskarari sentsibilizatzeko ekintzak plantan ezarri, euskarazko eskaintza garatzeko parada ikertu eskolaldi inguruko zerbitzuan, haur ttipien harreran, aisialdian, etab. )
- Euskal Elkargoak herriko etxeak lagunduko ditu bi hizkuntzetan eta manera autonomoan funtzionatuko duten arte: finantza eta ingeniari laguntza.

Herriko Etxeak gain-gainetik nahi du segitu euskarazko zerbitzuen plantan ezartzen. Proposatu hitzarmenak jarraipena eta iraunkortasuna bermatuko ditu etorkizunerako.

Herriko Kontseiluak aho batez onartu du.

### **3. Merkataritzako lokalaren saltzea TEC SERVICES sozietatearen kudeatzaile den LESIEUR jaunari**

TEC SERVICES sozietatearen kudeatzaile den LESIEUR jaunak 50 m<sup>2</sup>ko 2. lokal bat nahi luke erosi. Lehenbiziko lokalaren salmentaren prezio bera proposatu da: 25 000 € (BEZa gabe).

Herriko Kontseiluak onartu du.

### **4. KELEBen txostenaren onartzea**

- “Animalia biltegi” eskumena Ipar Euskal Herriko hegoaldeko 12 herriei itzultzea: funtzionamendu karguen eskualdaketaren ebaluazioa.
- Turismo eskumenaren (Donapaleu) animazio parteen (lehengoko Baxenabarreko Turismo Bulegoak zuena) itzultzea: karguen eskualdaketaren ebaluazioa.
- “Table du soir” elikadura-laguntzaren ekipamendua: karguen eskualdaketaren ebaluazioa.
- Hazparnealdean egiten den apairuen banaketa: karguen eskualdaketaren ebaluazioa (Hazparnealdeko herriak, Makea salbu).

Herriko Kontseiluak onartu du

### **5. Elekrika ezartzea baserrialdean**

Pirinio Atlantikoetako ENERGIA SINDIKATUAK ikerketa bat egin du obra hauen kariatara: **Peio IRIGARAYrena den BT sarearen luzatzea**; obra horiek 2019ko FACE AB “Baserrialdeko elektrifikazio programan” sartuko dira (lurpeko luzatzea).

Egitekoak diren obren gastuak: **12 113,99 €**

Hona operazioaren finantzamendu plana xeheki:

- FACEn parte hartzea	7 835,64 €
- SDEPAk aurrefinantzatu BEZa	1 889,91 €

- Herriko Etxearen parte hartzea obretan zergarik gabe	<b>1 958,91 €</b>
- Herriko Etxearen parte hartzea kudeaketa gastuetan	<b>429,53 €</b>

Herriko Kontseiluak onartu du

## **6. Arberoan zahar-etxe baten egiteko herriarteko sindikatuaren desegitea**

Arberoan (Aiherra, Lekuine, Izturitze, Mehaine, Oragarre, Donoztiri eta Donamartiri) zahar-etxe baten egiteko herriarteko sindikatua 1969ko ekainaren 16an sortu zen prefetaren erabaki baten ondotik, Izturitzen zahar-etxe baten eraikitzeko.

Sindikatu hori alde bat gelditu da, eta ez da gehiago kontularitza eta aurrekontu mugimendurik duela aspaldi. Sindikatu horrek 190,56€-ko finantza partez osatu aktiboa badu, eta ez du zorrik batere, ez hartzekorik ez eta banatzeko eskugainik.

Arberoan zahar-etxe baten egiteko herriarteko sindikatua 2020ko martxoaren 1ean desegitea proposatu da.

Herriko Kontseiluak onartu du.

## **7. Errolda-langilearen enplegatzea**

Errolda-langile baten enplegatzea denbora erdiz, osagarri gisa.

Errolda eginen duen taldea osatua da. Urtarrilaren 15ean hasiko dira biztanle kontaktetan. Egutegi zehatzagoa zabalduko da hilabete finitzean.

### **Gainerako gaiak**

- Antolaketa obrak departamenduko 10. errepidean, araztegiaren heinean. Pirinio Atlantikoetako Departamenduari 65 m<sup>2</sup> utziko zaizkio kadastrako zatien aldaketaren kariatara.
- 2019ko abenduaren 18an, asteazkenean, 16:00etan, adinekoen arratsaldeko askaria Auxotean.
- Jantegiaren handitzeko obren merkatua – kontsulta abenduaren 6an bukatu da. Zati guzietarako bada norbait interesaturik eta aurreikusi aurrekontua errespetatu da. J.P. Barbier obralariak proposamenak kontrolatzen ditu zerbitzu-ordenak izenpetzeko gisan urte zibila bukatu gabe.
- HTHP: inkesta publikoaren bururapena. Mandatari inkestagileen txostena 2020. urte hastapenean prest izanen da.
- Abenduaren 22an, igandean, 10:00etan Gozategia ostatu-jatetxean, aihertar guziei irekia den bilkura iraganen da.
  - 1- Gozategia jatetxearen kudeantza, oraingo bi kudeatzaileak partitu baitira.
  - 2- Beltzategia etxearen zaharberritzea, ondoko urteetako erronka nagusia.
- Langile ordezkioak xerkatzen ditugu eskolan lan egiteko eta herriko gelen garbiketa egiteko.